A.1.2.– Conservación activa: continuidad del uso actual con la participación activa del hombre en una dinámica de desarrollo sostenible.

A.2.– Mejora ambiental: tratamientos de tipo cultural capaces de reconducir la zona a su situación primigenia o a otros estados de equilibrio ecológico más valiosos. Básicamente consisten en la restauración de la vegetación natural propia del enclave o sector del mismo, permitiendo su propia evolución o mediante revegetación dirigida, reforestación y desarrollo de setos, matorral o pastos, restauración o mejora de la red de

tuz, eta lur-higidura arinak edo bestelako jardun arin batzuk gauzatuz, helburu horiek lortzearren.

A.2.1.– Hondartzak leheneratzea: hondartzak leheneratzera bideratutako jardunak, ahal dela Kostaldeei buruzko Legearen Erregelamenduaren 44.4. artikuluak ezartzen dituen terminoetan.

A.3.– Jarduera zientifiko eta kulturalak: ingurunea zientziako esperientzia eta ikerkuntzetarako erabiltzea, ikerlanak errazteko behar bezala egokitutako instalazio ez-iraunkorrak barne hartzen dituela, hala nola behaketa-lekuak, laginak biltzeko puntuak edo ontzien zirkulazioa; hori guztia azterketa eta behaketa errazteko.

*14. artikulua.–* Denbora libre eta aisialdiari buruzko jarduerak eta lurzoruaren erabilerak.

Honako hauek hartuko dira denbora libre eta aisialdiari buruzko jarduera eta erabileratzat:

B.1.– Erabilera publiko estentsiboa: ingurune naturala aisialdi, turismo, hezkuntza edo interpretazio helburuekin erabiltzea, jarduera bigunetan oinarrituz, eta ekipamendu garrantzitsurik gabe: ingurune fisikoan eragin handirik ez duten ibilaldiak eta behaketa, oinezkoen joan-etorri soila barne. Horrek ez du eskatzen inolako azpiegitura edo egokitzapenik, mendi-ibilaldi, behatoki eta abarretarako bidexkak hobetzeko eta zaintzeko lan txikiak izan ezik, paisaiarekiko artatsuak eta bertan integratuak egoten direla esan ohi baita. Itsasoaren erriberaren kasuan, erabilera honek paseatzea, egotea eta bainatzea, nabigatzea, ontziratzea, lehorreratzea, arrantzan egitea, landareak eta itsaskiak biltzea eta inolako obra eta instalaziorik behar ez duten eta kostaldeei buruzko legeriaren eta aplikatzekoa den arloko legeriaren arabera gauzatzen diren antzeko beste erabilera batzuk hartzen ditu bere baitan.

B.1.1.– Eskalada eta jarduera aeronautikoak: eskalatzea, bideak irekitzea eta finkatzea barne; delta hegala, parapentea, motor gabeko hegaldia eta aireko nabigazioko gainerako kirolak egitea.

B.2.– Erabilera publiko intentsiboa: ingurune naturala aisialdi, turismo, hezkuntza edota interpretazio helburuetarako erabiltzea, aisialdi eta/edo harrera ekipamenduetan oinarrituz, espazio mugatu bat hainbat jolas-jardueratarako egokitu behar bada ere.

B.2.1.– Jolasa gune jakinetan: leku jakin bat aisiarako eremu kontzentratu baterako egokitzea eta zenbait ekipamendurekin hornitzea, hala nola mahaiak, eserlekuak, erretokiak, iturriak, osasun-zerbitzua, paper-ontziak, jolaslekuak edo tamaina txikiko eraikuntzaren bat.

B.2.2.– Bainua eta uretako jarduerak: itsasoaren erribera intentsitate, arriskugarritasun edo errentagarritasuneko zirkunstantzietan erabiltzea barne hartzen du, itsasoaren erriberan lursailak egokituz jarduerak burutu ahal izateko:

drenaje superficial y movimientos ligeros de tierras u otro tipo de actuaciones leves para la consecución de aquellos fines.

A.2.1.– Regeneración de playas: actuaciones orientadas a la regeneración de playas, preferentemente en los términos que establece el Reglamento de la Ley de Costas (artículo 44.4).

A.3.– Actividades científico-culturales: utilización del medio para experiencias e investigación de carácter científico, incluyendo las instalaciones no permanentes y debidamente acondicionadas para facilitar la investigación, tales como puntos de observación, puntos de recogida de muestras, circulación de embarcaciones para facilitar el estudio y observación.

*Artículo 14.–* Usos del suelo y actividades relativos al ocio y esparcimiento.

Tendrán la consideración de usos y actividades relativos al ocio y esparcimiento, los siguientes:

B.1.– Uso público extensivo: uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, en base a actividades blandas, sin equipamientos significativos: excursionismo y contemplación, poco incidentes en el medio físico, implicando el simple tránsito peatonal, que no requiere ningún tipo de infraestructura o acondicionamiento para su práctica, a excepción de pequeñas obras de mejora y mantenimiento de senderos para la práctica de senderismo, miradores, etc., que se presumen cuidadosas e integradas en el paisaje. En el caso de la ribera del mar este uso se refiere a pasear, estar y bañarse, navegar, embarcar, varar, pescar, recoger plantas y mariscos y otros usos similares que no requieren obras e instalaciones de ningún tipo y que se realicen de acuerdo a la Legislación de Costas y a la legislación sectorial aplicable.

B.1.1.– Escalada y Actividades aeronáuticas: práctica del ejercicio de escalada incluyendo la apertura y fijación de vías; práctica de ala delta, parapente, vuelo sin motor, y demás deportes de navegación aérea.

B.2.– Uso público intensivo: uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, en base a equipamientos de ocio y/o acogida que implican la adaptación de un espacio localizado para actividades recreativas de distinto tipo.

B.2.1.– Recreo concentrado: consistente en la adaptación de un espacio localizado para el recreo concentrado dotándolo de equipamiento del tipo de mesas, bancos, barbacoas, fuentes, servicios sanitarios, papeleras, juegos o alguna edificación de pequeña entidad.

B.2.2.– Baño y actividades náuticas: incluye el uso de la ribera del mar en circunstancias de intensidad, peligrosidad o rentabilidad, acondicionando los terrenos anejos en la ribera del mar para la práctica de actividades:

B.2.2.1.– Bainu-eremuak baliza adierazleen bidez egokitzea.

B.2.2.2.– Tresna flotatzaileak, hala nola belaontziak, surf-oholak, piraguak eta hidropedalak lurreratzeko eremuak egokitzea.

B.2.2.3.– Hondartza-sasoiko zerbitzuak: eguzkitakoak, etzaulkiak, jatetxe arloko instalazio desmuntagarriak, etab.

B.2.3.– Kanpinak: kategoriaren arabera, zuzkidura eta zerbitzu aldakorrak dituzten instalazioak dira, eta ingurumena zuzenean eraldatu eta inguruneari presioa egiten diote. Kanpin-erabileratzat hartzen da Merkataritza eta Turismo Sailaren martxoaren 16ko 41/1981 Dekretuan, Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzkoan, eta hori aldatu zuen 178/1989 Dekretuan, uztailaren 27koan, ondorio horretarako ezarritakoa.

B.2.4.– Motordun ibilgailuen zirkulazioarekin lotura duten jarduerak: automobilismoa edo motoziklismoa horretarako prestatu gabeko lurretan egitea eta lur orotako ibilgailuentzako zirkuitu espezifikoen kokapena hartzen ditu bere baitan (Nekazaritzako eta/edo basozaintzako ibilgailu baimendunak izan ezik).

B.2.4.1.– Baimenik ez duten ibilgailuak landan barrena edo interes orokorreko bideetatik zirkulatzea, errepide nagusiak izan ezik, hau da, pista, bide eta antzekoetatik.

B.2.4.2.– Bereziki egokitutako zirkuituen kokapena.

B.2.5.– Golf-zelaiak: kirol honetan aritzeko bereziki egokitutako lursailak, horiekin loturik joan litezkeen eraikuntzak edo hirigintza-obrak inola ere barne hartu gabe.

B.2.6.– Aire libreko kirol-instalazioak: futbol-zelai, tenis-pista, igerileku eta abarren instalazioak.

B.2.7.– Instalazio zientifiko eta kulturalak: tamaina handi samarreko eraikuntzak egitea dakarte.

B.3.– Ehiza eta arrantzako jarduerak.

B.3.1.– Kirol-ehiza: jarduera honetan aritzea, arautzen duen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan.

B.3.2.– Kirol-arrantza: jarduera honetan aritzea, arautzen duen estatu edo autonomia mailako araudiaren barruan. Itsaski-bilketan aritzea eta algak biltzea barne, betiere asmo komertzial eta/edo industrialik gabe.

*15. artikulua.*– Lehen mailako baliabideak ustiatzeari buruzko jarduerak eta lurzoruaren erabilerak.

Honako hauek hartuko dira lehen mailako baliabideak ustiatzeari buruzko jarduera eta erabileratzat:

C.1.– Nekazaritza: lurra laboratu ahal izateko prestatzera zuzendutako jarduerak eta uzta maneiatu eta biltzeko, aukeratzeko eta sailkatzeko jarduerak hartzen di-

B.2.2.1.– Adecuación de zonas de baño mediante balizas indicadoras.

B.2.2.2.– Adecuación de zonas de varada de artefactos flotantes como veleros, surf, piraguas, hidropedal.

B.2.2.3.– Servicios de temporada de playas: sombrillas, tumbonas, instalaciones desmontables de restauración, etc.

B.2.3.– Campings: instalaciones con dotaciones y servicios variables en función de su categoría, que suponen una alteración directa del medio y presión sobre su entorno. Se entiende como uso de Camping el establecido a tal efecto en el Decreto del Departamento de Comercio y Turismo 41/1981, de 16 de marzo, sobre Ordenación de Campings en el País Vasco y en el Decreto 178/1989 de 27 de julio de modificación del anterior.

B.2.4.– Actividades ligadas a la circulación de vehículos a motor: se refiere a la práctica de automovilismo o motociclismo sobre terrenos no acondicionados para ello, así como la localización de circuitos específicos para vehículos todo terreno (se excluyen los vehículos agrícolas y/o forestales autorizados).

B.2.4.1.– Circulación de vehículos no autorizados campo a través o por vías de interés general excluidas las carreteras principales, es decir, por pistas, caminos y vías similares.

B.2.4.2.– Localización de circuitos especialmente adaptados.

B.2.5.– Campos de golf: terrenos acondicionados expresamente para la práctica de este deporte, sin incluir en ningún caso las edificaciones u obras de urbanización que pudieran llevar aparejados.

B.2.6.– Instalaciones deportivas al aire libre: instalación de campos de fútbol, pistas de tenis, piscinas, etc.

B.2.7.– Instalaciones científico culturales: implican la construcción de edificios de cierta envergadura.

B.3.– Actividades cinegéticas y piscícolas.

B.3.1.– Caza deportiva: práctica de esta actividad dentro de la reglamentación estatal o autonómica que la regula.

B.3.2.– Pesca deportiva: práctica de esta actividad dentro de la reglamentación estatal o autonómica que la regula. Incluye la práctica del marisqueo y la recogida de algas sin fines comerciales y/o industriales.

*Artículo 15.*– Usos del suelo y actividades relativos a la explotación de recursos primarios.

Tendrán la consideración de usos y actividades relativos a la explotación de recursos primarios, los siguientes:

C.1.– Agricultura: incluye las actividades destinadas a la preparación de la tierra para su puesta en cultivo así como las de manejo y recolección, selección y

tu bere baitan, ondoren biltegiratu edo kontsumitzeko asmoz garraiatuak izateko moduan antolatuz, baita horiei lotutako zerbitzu-eraikuntzak eta etxebizitzak ere.

C.1.1.– Nekazaritzako ustiapenari lotutako eraikuntzak.

C.1.1.1.– Nekazaritzako lanabesak, tresnak eta produktuak biltegiratzeko eta gordetzeko eraikuntzak.

C.1.1.2.– Nekazaritzako produktuen lehen transformaziora edo artisau-transformaziora zuzendutako nabe eta biltegien eraikuntzak. Eraikitako azalerak lotura izan beharko du zerbitzatzen duen ustiapenaren edo, produktore elkartuen kasuan, ustiapenen produkzio-ahalmenarekin.

C.1.1.3.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen bati loturik, nekazariaren bizileku izateko familia bakarreko edo biko etxebizitzetarako eraikuntzak. Zuzeneko ustiapenari zorrotz loturik eta aldez aurretik horren premia frogatuta.

C.1.2.– Nekazaritza-jarduerei lotutako jardunbideak: lurren laborantza esan ohi dena ahalbidetzera edo erraztera bideratutako jardunbideak, medeatzeko, ereiteko, ongarritzeko, biltzeko, mozteko eta inausteko lanak ere barne direla, ondoren adierazitakoak izan ezik:

C.1.2.1.– Ureztatzeko ura erauztea.

C.1.2.2.– Landaredia erretzea.

C.1.2.3.– Beteguneak eginez, ura erauziz, lezoiak eraikiz eta abar lehortzea.

C.1.2.4.– Produktu fitosanitarioak erabiltzea.

C.1.3.– Lurzoruaren erabilera aldatzea: nekazaritzako azalera handitzea dakarten lursail berriak luberritzea.

C.1.4.– Ureztatze-transformazioak: lehorreko laboreetatik labore ureztatuetarako transformazioa, baliabide hidrikoaren bilketa eta nekazaritza ureztaturako beharrezkoak diren obrak eta instalazioak barne.

C.2.– Berotegiak: instalazio iraunkorrak, eskuraerrazak eta itxiturak dituztenak, laborantza-zikloko fase guztiak edo batzuk garatzeko.

C.2.1.– Berotegi-jarduerei loturiko eraikuntzak.

C.2.1.1.– Lanabesak eta produktuak biltegiratzea eta kontserbatzea.

C.2.1.2.– Produktuen lehen transformaziorako eraikuntzak.

C.3.– Abeltzaintza: larrea eta bazka lortzeko eta artzaintzarako lurra prestatzeko jarduerak.

C.3.1.– Abeltzaintza-jarduerari lotutako eraikuntzak.

clasificación de las cosechas dispuestas en condiciones de ser transportadas para su posterior almacenamiento o consumo, las edificaciones de servicio y vivienda asociadas.

C.1.1.– Construcciones relacionadas con la explotación agrícola.

C.1.1.1.– Construcciones destinadas a almacenamiento y conservación de útiles, aperos de labranza y de productos agrarios.

C.1.1.2.– Construcciones de naves y almacenes destinadas a la primera transformación de los productos agrarios o transformación artesanal de los mismos. La superficie construida deberá guardar relación con la capacidad productora de la explotación a la que sirve o de las explotaciones en caso de productores asociados.

C.1.1.3.– Construcciones destinadas a vivienda unifamiliar o bifamiliar ligadas a una explotación agropecuaria para residencia de agricultor. Estrictamente ligadas a la explotación directa y previa demostración de su necesidad.

C.1.2- Prácticas relacionadas con las actividades agrícolas: prácticas encaminadas a posibilitar o facilitar el cultivo propiamente dicho de los terrenos, incluyendo las labores de enmienda, siembra, fertilización, recolección, talas y poda, con la excepción de las que se enumeran a continuación:

C.1.2.1.– Extracción de agua para riego.

C.1.2.2.– Quema de la vegetación.

C.1.2.3.– Desecación a través de relleno, extracción de agua, construcción de lezones, etc.

C.1.2.4.– Utilización de productos fitosanitarios.

C.1.3.– Cambios de uso del suelo: se refiere a las roturaciones de nuevas tierras que implican un aumento de la superficie agrícola.

C.1.4.– Transformaciones de regadío: transformación de cultivos de secano a regadío incluyendo la captación del recurso hídrico así como las obras e instalaciones necesarias para la agricultura de regadío.

C.2.– Invernaderos: instalaciones permanentes, accesibles y con cerramientos, destinados a desarrollar todas o algunas de las fases del ciclo de los cultivos.

C.2.1.– Construcciones ligadas a las actividades de invernadero.

C.2.1.1.– Almacenamiento y conservación de útiles y productos.

C.2.1.2.– Construcciones para la primera transformación de los productos.

C.3.– Ganadería: actividades destinadas a la preparación de la tierra para la obtención de pastos y cultivos forrajeros, así como para el pastoreo y la práctica de éste.

C.3.1.– Construcciones ligadas a la actividad ganadera.

C.3.1.1.– Itxiturak, bordak, askak.

C.3.1.2.– Produktuen lehen transformaziorako eraikuntzak.

C.3.2.– Larregintza eta artzaintza: larrea eta bazka lortzeko lurra prestatzeko jarduerak eta artzaintza eta horri loturiko jarduerak (belar-sastrakak kentze, simaur-etzauntzetarako iratzeak biltzea, etab.).

C.4.– Baso-erabilera: zuhaitz-espezieak landatu edo ereitea, helburua babes ekologikoa edo paisajistikoa, edo, nagusiki, produkzioa izanik.

C.4.1.– Babeserako baso-erabilera: zuhaitz- edo zuhaixka-espezieak landatu edo ereitea eta dagozkion basogintzako lanak, helburua babes ekologikoa edo paisajistikoa izanik. Basoaren aprobetxamendu iraunkor tradizionala barne hartzen da: zura, fruituak, perretxikoak eta onddoak.

C.4.2.– Produkziorako baso-erabilera: zuhaitz- edo zuhaixka-espezieak landatu edo ereitea eta dagozkion basogintzako lanak, zuhaitz-masen maneiu eta ustiapen ekonomikora bideratuak.

C.4.3.– Baso-erabilerari lotutako eraikuntzak.

C.4.3.1.– Zuhaitz-masak maneiatzeko instalazioak.

C.4.3.2.– Lanabesak eta produktuak biltegiratzea eta kontserbatzea.

C.4.3.3.– Produktuen lehen transformaziorako eraikuntzak.

C.4.4.– Basoko espezieak moztea, erretzea eta errotik ateratzea.

C.4.5.– Baso-ustiapen intentsiboak: zura, egurrak, landareak eta erretxina ustiatzea eta fruituak, perretxikoak eta onddoak biltzea, xede komertzial eta/edo industrialekin.

C.4.6.– Lurzoruaren erabilera aldatzea: nekazaritzako azalerak basoko espezie produktiboak landatzeko luberritzea.

C.5.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako industriak: xede hauetarako eraikuntzak:

C.5.1.– Abeltzaintzako aprobetxamendu intentsiboak: animalia-mota ororen zainketa eta/edo hazkuntza intentsibora zuzenduak, ukuiluratze iraunkorreko erregimenean eta gune irekien antolamendu osagarria errespetatuz. Autokontsumorako direnak eta nekazaritza-ustiapenari loturikoak salbuesten dira, eta ez dira inola ere gaindituko ustiapen horren premiak.

C.5.1.1.– Produktuen lehen transformaziora zuzendutako eraikuntzak.

C.5.2.– Ustiapenari zuzenean loturik ez dauden lehen transformazioko nekazaritzako elikagaien industriak.

C.3.1.1.– Cercados, bordas, abrevaderos.

C.3.1.2.– Construcciones para la primera transformación de los productos.

C.3.2.– Pascicultura y pastoreo: actividades destinadas a la preparación de la tierra para la obtención de pastos y cultivos forrajeros así como el pastoreo y actividades ligadas al mismo (desbroce, recogida de helechos para camas de estiércol etc.).

C.4.– Uso forestal: plantación o siembra de especies arbóreas, tanto con un fin de protección ecológica o paisajística, como con fin eminentemente productor.

C.4.1.– Uso forestal de protección: plantación o siembra de especies arbóreas o arbustivas así como las tareas selvícolas correspondientes, con el fin de la protección ecológica o paisajística. Se incluye el aprovechamiento sostenible tradicional del bosque: maderas, frutos, setas y hongos.

C.4.2.– Uso forestal productor: plantación o siembra de especies arbóreas o arbustivas, así como las tareas selvícolas correspondientes, orientadas al manejo y explotación económica de las masas arbóreas.

C.4.3.– Construcciones ligadas al uso forestal.

C.4.3.1.– Instalaciones para el manejo de las masas.

C.4.3.2.– Almacenamiento y conservación de útiles y productos.

C.4.3.3.– Construcciones para la primera transformación de los productos.

C.4.4.– Corta, quema y arranque de especies forestales.

C.4.5.– Aprovechamientos forestales intensivos: incluye el aprovechamiento de madera, leñas, plantas, resina, así como la recolección de frutos, setas y hongos con fines comerciales y/o industriales.

C.4.6.– Cambios de uso del suelo: se refiere a la roturación de superficies agrícolas para la plantación de especies forestales productivas.

C.5.– Industrias agropecuarias: construcciones destinadas a:

C.5.1.– Aprovechamientos ganaderos intensivos: destinados a la guardería y/o a la cría intensiva de todo tipo de animales en régimen de estabulación permanente sin perjuicio de la disposición complementaria de espacios abiertos. Se excluyen los referentes a autoconsumo y los relacionados con la explotación agraria, sin que en ningún caso exceda de las necesidades de tal explotación.

C.5.1.1.– Construcciones destinadas a primera transformación de los productos.

C.5.2.– Industrias agroalimentarias de primera transformación no ligadas directamente a una explotación.

C.6.– Akuikultura: ur gezatako zein ur gazitako edo gazikaratako arrain-espezieen produkziorako, hazkuntzarako eta lehen transformaziorako instalazioak.

C.6.1.– Ur gezatako espezieen hazkuntzarako instalazioak.

C.6.2.– Ur gazitako edo gazikaratako espezieen hazkuntzarako instalazioak.

C.7.– Arrantza eta bilketa: jarduera horiek gauzatzea eta horiei loturiko instalazioak (kaiolak eta txanelak, teleferikoak, etab.), xede komertzial eta/edo industrialekin Arrantza, itsaski-bilketa eta alga-bilketa barne hartzen ditu.

C.8.– Erauzketa-jarduerak: baliabide mineralak erauzteko jarduerak, baita horiei zuzenean loturiko jarduera osagarriak ere Gune horretan bertan dauden baliabide geologikoen erauzketarako eta lehen tratamendurako eraikuntzak eta instalazioak ere barne hartzen dira. Meatze-baliabideak aztertzeko eta ikertzeko lanak ez dira barne hartzen.

C.8.1.– Dragatze bidezko ustiapenak: ur-maila iraunkorra mantentzen duten eta erauzketa dragatze bidez egiten duten meategien ustiapen guztiak barne hartzen ditu (agregakinak eta hareak erauztea, zohikaztegiak, legar-hobiak, etab.).

C.8.2.– Gatzagak.

C.8.3.– Aire zabaleko erauzketa-jarduerak.

C.8.4.– Lurpeko erauzketa-jarduerak.

C.9.– Arrantza-industriak: kontserba-industriak, lantegi izoztaileak, arrain-eratorrien transfomatzaileak eta produktoreak eta abar, horiek biltegiratzeko eta banatzeko instalazioak barne.

*16. artikulua.*– Azpiegiturei buruzko jarduerak eta lurzoruaren erabilerak.

Honako hauek hartuko dira azpiegiturei buruzko jarduera eta erabileratzat:

D.1.– Garraiobideak: autobideak, autobiak, errepideak, trenbideak eta horien instalazio osagarriak. Halaber, komunikatzeko beste bide edo kanal batzuk ere sartzen dira, antzeko eragina duten pertsona edo merkantzien garraioan aritzen direnak.

D.1.1.– Hornitegiak: garraiobideei loturik dauden erregaia saltzeko instalazioak eta horien biltegiratzetangak.

D.1.2.– Autobideak, autobiak, errepideak eta trenbide-lineak egitea.

D.2.– Aireko lineak: energia elektrikoa garraiatzeko edo banatzeko sareak eta bestelako helburuak dituzten aireko lineak, sarearen euskarri eta instalazio osagarriak barne.

D.3.– Lurpeko lineak: gasa, petrolioa eta produktu deribatuak eta ura garraiatzeko edo banatzeko sareak, saneamendurako eta telekomunikaziorako sareak eta

C.6.– Acuicultura: instalaciones destinadas a la producción, cría y primera transformación de especies piscícolas tanto de agua dulce como salada o salobre.

C.6.1.– Instalaciones para el cultivo de especies de agua dulce.

C.6.2.– Instalaciones para el cultivo de especies de agua salada o salobre.

C.7.– Pesca y recolección: práctica de estas actividades incluyendo las instalaciones asociadas (jaulas y bateas, teleféricos, etc.), con fines industriales y/o comerciales. Incluye pesca, marisqueo y recolección de algas.

C.8.– Actividades extractivas: actividades encaminadas a la extracción de los recursos minerales así como las auxiliares vinculadas directamente a ésta. Se incluyen las edificaciones e instalaciones destinadas a la extracción y primer tratamiento de los recursos geológicos sitos en la propia zona. No se incluyen las labores de prospección e investigación de los recursos mineros.

C.8.1.– Explotaciones por dragado: incluye todas aquellas explotaciones de yacimientos minerales que mantienen un nivel de agua permanente y cuya extracción se realiza mediante dragado (extracción de áridos y arenas, turberas, graveras, etc.).

C.8.2.– Salinas.

C.8.3.– Actividades extractivas a cielo abierto.

C.8.4.– Actividades extractivas subterráneas.

C.9.– Industrias pesqueras: conserveras, congeladoras, transformadoras y productoras de derivados del pescado, etc. incluyendo las instalaciones destinadas a su almacenaje y distribución.

***Artículo 16.***– Usos del suelo y actividades relativos a infraestructuras.

Tendrán la consideración de usos y actividades relativos a infraestructuras, los siguientes:

D.1.– Vías de transporte: autopistas, autovías, carreteras, ferrocarriles y sus instalaciones complementarias. Asimismo, se incluyen otros canales o vías de comunicación dedicados al transporte de personas o mercancías con similar impacto.

D.1.1.– Estaciones de servicio: instalaciones de venta de combustible asociadas a las vías de transporte y sus depósitos de almacenamiento.

D.1.2.– Ejecución de autopistas, autovías, carreteras y líneas de ferrocarril.

D.2.– Líneas de tendido aéreo: redes de transporte o distribución de energía eléctrica y otras líneas de tendido aéreo y distinta finalidad junto a los soportes e instalaciones complementarias a la red.

D.3.– Líneas subterráneas: redes de transporte o distribución de gas, petróleo y productos derivados, agua, saneamiento, telecomunicaciones y otras redes infraes-

lurpeko beste azpiegitura-sare batzuk, instalazio osagarriak barne.

D.3.1.– Gasa, petrolioa, saneamendua eta beste zenbait fluido poluitzaile.

D.3.2.– Ura, telekomunikazioak, energia elektrikoa, etab.

D.4.– A motako zerbitzu-instalazio ez linealen instalazio teknikoak.

D.4.1.– Ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko azalera handiak: 50 ibilgailutik gora aparkatzeko lekua dutenak.

D.4.2.– Ura tratatzeko eta edateko bihurtzeko instalazioak, urtegiak edo ur-biltegi handiak.

D.4.3.– Energia elektrikoa sortzeko zentralak, 100 $m^2$ baino azalera handiagoko transformazio-estazioak eta gasa biltzeko edo sortzeko zentralak.

D.4.4.– Hondakin-uren araztegiak.

D.4.5.– Hondakin solidoak tratatzeko instalazioak eta zabortegi kontrolatuak.

D.4.5.1.– Hiri-hondakin solidoak eta parekagarriak.

D.4.5.2.– Hondakin toxikoak eta arriskutsuak.

D.4.5.3.– Hondakindegiak, autoak desegiteko lekuak, transferentzia-instalazioak eta aurreko idatz-zatietan aintzat hartzen ez diren bestelako zabortegi baimenduak.

D.4.5.4.– Dragatze-materialen zabortegia.

D.5.– B motako zerbitzu-instalazio ez linealen instalazio teknikoak.

D.5.1.– Irratiko, telebistako eta satelite bidezko komunikazioko dorreak, antenak eta estazio igorle-hartzaileak eta antzeko eragina duten beste komunikazio-instalazio batzuk.

D.5.2.– Faroak, irrati-faroak.

D.5.3.– Tamaina txikiko aparkalekuak: ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko azalerak, 50 ibilgailu edo gutxiago aparkatzeko lekua dutenak.

D.5.4.– Sarbideak: hiriko sarbide-azpiegitura txikiak, hala nola tunel txikiak, eskailerak, barandak eta bide zementatuak.

D.5.5.– Itsas energiaren aprobetxamendua: itsasoan biltegiratutako energia erauztera bideratutako jarduerak.

D.5.6.– Parke eolikoak: energia eolikoa aprobetxatzeko instalazioak.

D.6.– Bideratzeak eta kanalizazioak: ubideen ibilbidea aldatzea eta haien bazterrak eta erriberak iragazgaiztea, hormak eta dikeak eraikiz.

D.7.– Portu-azpiegiturak: itsas garraiorako, ontziak amarratzeko eta horiei lotutako zerbitzuetarako instalazio iraunkorrak.

tructurales subterráneas así como las instalaciones complementarias.

D.3.1.– Gas, petróleo, saneamiento, y otros fluidos contaminantes.

D.3.2.– Agua, telecomunicaciones, energía eléctrica, etc.

D.4.– Instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo A.

D.4.1.– Grandes superficies de estacionamiento de vehículos al aire libre: de capacidad superior a 50 vehículos.

D.4.2.– Plantas potabilizadoras y de tratamiento de agua, embalses o grandes depósitos de agua.

D.4.3.– Centrales productoras de energía eléctrica, estaciones transformadoras de superficie superior a 100 $m^2$, centrales de captación o producción de gas.

D.4.4.– Plantas depuradoras de aguas residuales.

D.4.5.– Plantas de tratamiento de residuos sólidos y vertederos controlados.

D.4.5.1.– Residuos sólidos urbanos y asimilables a urbanos.

D.4.5.2.– Residuos tóxicos y peligrosos.

D.4.5.3.– Escombreras, desguace de vehículos, plantas de transferencia y otros vertederos autorizados no contemplados en los apartados anteriores.

D.4.5.4.– Vertedero de materiales de dragado.

D.5.– Instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo B.

D.5.1.– Torres, antenas y estaciones emisoras-receptoras de radio, televisión comunicación vía satélite y otras instalaciones de comunicación de similar impacto.

D.5.2.– Faros, radiofaros.

D.5.3.– Aparcamientos de pequeña dimensión: superficies de estacionamiento de vehículos al aire libre de capacidad inferior o igual a 50 vehículos.

D.5.4.– Accesos: infraestructuras de acceso de carácter urbano de entidad menor como pequeños túneles, escaleras, barandillas, caminos cementados etc.

D.5.5.– Aprovechamiento de la energía marina: actividades encaminadas a la extracción de la energía almacenada en el mar.

D.5.6.– Parques eólicos: instalaciones de aprovechamiento de la energía eólica.

D.6.– Encauzamientos y canalizaciones: modificaciones del trazado de los cauces e impermeabilización de sus orillas y riberas mediante muros y diques.

D.7.– Infraestructuras portuarias: instalaciones permanentes destinadas al transporte marítimo y al amarre de embarcaciones y sus servicios asociados.

D.7.1.– Itsas portua. Merkataritzako eta/edo arrantzako ontziak amarratzeko eta babesteko eta horiei lotutako zerbitzuetarako instalazio iraunkorrak.

D.7.2.– Kirol-portua.

D.7.3.– Uretako kirol-instalazioak. Ontzien amarradura.

D.7.4.– Uretako kirol-instalazioak. Ur gaineko ontziralekua.

D.8.– Itsas pasealekuen eraikuntza: itsasoaren erriberari lotutako oinezkoentzako hiri-pasealekuak.

D.9.– Kostaldea defendatzeko obrak: harri-lubetak, dikeak, etab.

D.10.– Instalazio aeronautikoak:

D.10.1.– Aireportuak, aerodromoak.

D.10.2.– Heliportuak.

D.11.– Publizitatea: hesiak eta publizitate-iragarkiak instalatzea.

*17. artikulua.*– Hirigintza-hazkunde eta eraikuntza-jarduera bakartuei buruzko jarduerak eta lurzoruaren erabilerak.

Honako hauek hartuko dira hirigintza-hazkunde eta eraikuntza-jarduera bakartuei buruzko jarduera eta erabileratzat:

E.1.– Lehendik dauden guneetan oinarritzen diren hazkundeak: lehendik dauden hiriguneen edo landaguneen hazkunde gisa eratzen diren hirigintza-garapenak dira, haien garrantzia edozein izanik ere, baita Euskal Herrian ohikoak diren populatze-formak ere, hots, baserri-itxurako eraikuntza-talde txikiak, betiere, oinarritzat hartzen dituzten guneekiko egitura eta tipologia egokia mantenduz.

Bereziki: lurraldean dauden landaguneen hazkundeak jasotzen ditu erabilera honek. Gune horien kasuan, hazkundeak lehendik dagoen gunearena baino hirigintza-aprobetxamendu handiagoa sortzen badu, hurrengo puntuan aztertzen den kategoriako lurzoruaren erabileratzat joko da garapen hori.

E.2.– Lehendik dauden guneetan oinarritzen ez diren garapenak: etxebizitza, industria edo zerbitzuetara zuzendutako hirigintza-jardunak dira, beren izaerari loturiko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera osagarri guztiak onar ditzaketenak, eta lehendik dauden hirigune edo industriaguneetatik bereizitako esparruetan garatzen direnak, edo bestela, oinarritzat hartzen duten elementuak zuena baino hirigintza-aprobetxamendu handiagoa dakartenak.

E.2.1.– Hirugarren sektoreko erabilera: saltokiak, ostalaritza, landa-turismoko instalazioak, etab.

E.3.– Onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak.

E.3.1.– Landa-inguruneari lotutako komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuetarako eraikuntzak eta

D.7.1.– Puerto Marítimo. Instalaciones permanentes destinadas al amarre y abrigo de embarcaciones comerciales y/o pesqueras y sus servicios asociados.

D.7.2.– Puerto deportivo.

D.7.3.– Instalaciones náutico deportivas. Amarre de embarcaciones.

D.7.4.– Instalaciones náutico deportivas. Embarcadero flotante.

D.8.– Construcción de paseos marítimos: paseos urbanos peatonales vinculados a la ribera del mar.

D.9.– Obras de defensa costera: escolleras, diques, etc.

D.10.– Instalaciones aeronáuticas:

D.10.1.– Aeropuertos, aeródromos.

D.10.2.– Helipuertos.

D.11.– Publicidad: instalación de vallas y anuncios publicitarios.

*Artículo 17.*– Usos del suelo y actividades relativas a crecimientos urbanísticos y actuaciones edificatorias aisladas.

Tendrán la consideración de usos y actividades relativos a crecimientos urbanísticos y actuaciones edificatorias aisladas, los siguientes:

E.1.– Crecimientos apoyados en núcleos preexistentes: se trata de los desarrollos urbanísticos concebidos como crecimiento de núcleos urbanos o rurales ya existentes, cualquiera que sea su entidad, incluidas ciertas formas de poblamiento típicas del País Vasco caracterizadas por un número reducido de construcciones de índole rústico, siempre con una correspondencia estructural y tipológica con los núcleos en los que se apoyan.

De forma particular: este uso recoge los crecimientos de los núcleos rurales existentes en el territorio. Para estos núcleos, si la entidad del crecimiento genera un aprovechamiento urbanístico superior al del núcleo preexistente, este desarrollo se considerará como un uso del suelo perteneciente a la categoría a que se hace referencia en el punto siguiente.

E.2.– Crecimientos no apoyados en núcleos preexistentes: se trata de actuaciones urbanísticas de carácter residencial, industrial o de servicios que pueden incorporar todo el conjunto de equipamientos, dotaciones y usos complementarios correspondientes a su propio carácter y que se desarrollan en áreas desligadas de zonas urbanas o industriales preexistentes o suponen un aprovechamiento urbanístico superior al del elemento en que se apoyan.

E.2.1.– Uso terciario: establecimientos comerciales, hostelería, instalaciones de agroturismo, etc.

E.3.– Edificios de Utilidad Pública e Interés Social.

E.3.1.– Edificaciones e instalaciones para equipamientos comunitarios públicos o privados ligados al

instalazioak. Eraikuntza eta instalazio horiek, beren izaera eta ezaugarriak direla medio nahitaez landa-ingurunean kokatuta egon behar duten zerbitzuak egitera zuzenduta daude, betiere aldez aurretik onura publiko edo gizarte-interesekotzat deklaratu badira (harrera- eta informazio-zentroak, ekomuseoak eta antzeko eraikinak).

E.3.2.– Itsasoko eta lehorreko jabari publikoari lotutako komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuetarako eraikuntzak eta instalazioak. Eraikuntza eta instalazio hauek, beren izaera eta ezaugarriak direla medio nahitaez itsasoko eta lehorreko jabari publikoan kokatuta egon behar duten zerbitzuak egitera zuzenduta daude, betiere aldez aurretik onura publiko edo gizarte-interesekotzat deklaratu badira. Oro har, hondartzen edo aisia-eremuen zerbitzurako ekipamenduak izaten dira, hala nola salbamendu-instalazioak, ontzien gordelekua, dutxak eta komunak.

E.4.– Lurzoru urbanizaezineko etxebizitza bakartua: lurzoru urbanizaezinean oinplano berriko etxebizitza isolatua eraikitzea, nekazaritza eta abeltzaintzako baliabideen ustiapenarekin loturarik ez duena. Familia bakarreko etxebizitza bakartutzat joko dira karabanak, mobilhome-ak edo etxe aurrefabrikatuak, baldin eta kanpin-izaera ez duten lursailetan kokatuta badaude, Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko 178/1989 Dekretuan (41/1981 Dekretua aldatzen duena) zehaztutako definizioaren arabera.

E.5.– Industria edo biltegiratze arriskutsuak: beren izaera, ezaugarri edo manipulatutako materialengatik arrisku larriak sorraraz ditzaketen substantzia eta produkzio-prozesuak biltegiratzea eta garatzea. Arrisku horien ondorioz, ez da baimenik ematen hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurretan barne hartzeko.

E.6.– Itsasoko eta lehorreko jabari publikoari lotutako industriak: ontziolak, dragatze-enpresak, etab.

## III. KAPITULUA
## ANTOLAMENDU KATEGORIAK

***18. artikulua.–*** Antolamendu-kategoriak.

1.– Antolamendu-kategoriek harrera-gaitasunaren arabera definitutako sektoreetan zonakatzen dute lurraldea, kontserbaziorako balioaren arabera, eta horietako bakoitzari lurzoruaren erabileren eta jardueren araudi bat aplikatuko zaio bere ezaugarrien arabera, erabilera eta aprobetxamendua zehazteko.

2.– Kontserbaziorako balioa zehazteko interpretazio-irizpideak dira itsasertzaren ezaugarri morfologikoen eta landaredi autoktonoaren unitateen presentzia, lurzoruaren erabilerak, paisaiaren kalitatea eta ahultasuna eta lurpeko akuiferoen zaurgarritasuna. Era berean, antolamendu-kategoriak ezartzeko kontserbaziorako balioak konbinatu egin dira, landaredi-elementu berezien

medio rural. Se entiende que dichas edificaciones e instalaciones están destinadas a prestar servicios que, por su naturaleza y características deben obligatoriamente emplazarse en medio rural, siempre que previamente hubieran sido declarados de utilidad pública o interés social (centros de acogida e información, ecomuseos y edificios similares).

E.3.2.– Edificaciones e instalaciones para equipamientos comunitarios públicos o privados ligados al dominio público marítimo-terrestre. Se entiende que dichas edificaciones e instalaciones están destinadas a prestar servicios que por su naturaleza y características, deben obligatoriamente emplazarse en dominio público marítimo-terrestre, siempre que previamente hubieran sido declarados de utilidad pública o interés social. En general se trata de equipamientos al servicio de las playas o zonas de recreo, tales como instalaciones de salvamento, guardería de embarcaciones, duchas, aseos, etc.

E.4.– Vivienda aislada en suelo no urbanizable: construcción de vivienda aislada de nueva planta en suelo no urbanizable, no vinculada a explotación de recursos agropecuarios. Tendrán la consideración de viviendas unifamiliares aisladas las caravanas, «mobilhomes» o casas prefabricadas ubicadas en cualquier terreno que no tenga la consideración de camping según la definición contenida en el Decreto 178/1989 de modificación del Decreto 41/1981, sobre ordenación de campings en el País Vasco.

E.5.– Industrias o almacenamientos peligrosos: almacenamiento y desarrollo de sustancias y procesos productivos que por su naturaleza, características o materiales manipulados puedan originar riesgos graves que no permitan su inclusión en terrenos clasificados como suelo urbano o urbanizable.

E.6.– Industrias ligadas al dominio público marítimo-terrestre: astilleros, empresas de dragados, etc.

## CAPÍTULO III
## CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN

***Artículo 18.–*** Categorías de ordenación.

1.– Las categorías de ordenación constituyen una zonificación del territorio en sectores definidos según su capacidad de acogida, en función del valor para la conservación, a cada uno de los cuales se le aplicará una regulación de usos del suelo y actividades de acuerdo con su naturaleza que determinará su utilización y aprovechamiento.

2.– Son criterios interpretativos para determinar el valor para la conservación la presencia de rasgos geomorfológicos litorales, de unidades de vegetación autóctona, los usos del suelo, la calidad y fragilidad del paisaje y la vulnerabilidad de los acuíferos subterráneos. A su vez, el establecimiento de las distintas categorías de ordenación se ha realizado mediante la combinación

edo itsasertzaren ezaugarri geomorfologikoen presentziarekin batera.

3.– LAP honek ezarritako antolamendu-kategoriak, adierazitako irizpideak kontuan hartuta eta plan honek lortu nahi dituen xedeak betetzeko beharrezkoa den babes-mailari jarraiki, honako hauek dira:

a) Babes Berezia. Babes Zorrotz Berezia eta Babes Bateragarri Berezia azpikategoriak hartzen ditu bere baitan.

b) Ingurumenaren Hobekuntza. Ekosistemak Hobetzeko Eremuak eta Berreskuratzeko Eremu Narriatuak azpikategoriak hartzen ditu bere baitan.

c) Basoa.

d) Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala.

e) Erabilera bereziko zonak. Hiri-hondartzak.

4.– Plan honetan aurreikusitako ondorioetarako, planoek definitzen dute antolamendu-kategorien mugaketa grafikoa, 2. idatz-zatian deskribatutako interpretazio-irizpideen arabera lortua eta, horrenbestez, hurrengo artikuluetan egiten den kategoria horien definizioa deskribatzailea eta orientagarria baino ez da. Udal-plangintzak eskala txikiagoan doitu ahal izango ditu proposatutako zonen mugaketa grafikoak.

*19. artikulua.*– Babes Bereziko antolamendu-kategoria (EP).

1.– Itsasadar eta estuario, hondartza, duna, barrualdeko hezegune, kostaldeko itsaslabar, nabarmendutako edo landaredi bereziko eremu eta, orokorrean, balio natural garrantzitsuak –endemismo begetalak egotea, bertako abere-faunaren aberastasuna–, paisaiaren aldetik balio garrantzitsu, balio zientifiko, ahultasun handi, eta beste hainbat ezaugarri dituzten guneetan aplikatuko da.

2.– Erabilera eta jarduerak hobeto arautzearren, oso heterogeneoak direnez, bi antolamendu-azpikategoria definitu dira:

a) Babes Zorrotz Berezia (EPE). Kontserbatzeko balio handieneko eremuak dira. Bertan, honako unitate hauek daude: 60.º baino gehiagoko aldapa duten kostaldeko itsaslabarrak, urradurako plataformak, dunak, lehorreko itsasoaren uharteak, hondartza naturalak eta eremu bereziak.

b) Babes Bateragarri Berezia (EPC). Bertan sartuko dira, ekologia eta/edo paisaiaren ikuspegitik balio handia izanda, balio horien kontserbazioa eta bertako oinarrizko baliabideen aprobetxamendua, abeltzaintza eta nekazaritzakoak batez ere, uztartu behar dituzten espazioak. Kategoria honen barne daude 60.º baino malda txikiagoa duten kostaldeko itsaslabar-unitate guztiak.

de los valores para la conservación, junto con la presencia de elementos singulares de vegetación o de rasgos geomorfológicos litorales.

3.– Las categorías de ordenación establecidas por este PTS, en atención a los criterios mencionados, así como por el nivel de protección necesario para el cumplimiento de los fines que persigue este Plan, son las siguientes:

a) Especial Protección. Incluye las subcategorías de Especial Protección Estricta y Especial Protección Compatible.

b) Mejora Ambiental. Incluye las subcategorías de Áreas de Mejora de Ecosistemas y Áreas Degradadas a Recuperar.

c) Forestal.

d) Agroganadera y Campiña.

e) Zonas de Uso Especial. Playas Urbanas.

4.– A los efectos prevenidos en este Plan, los planos definen la delimitación gráfica de las categorías de ordenación, obtenida de acuerdo a los criterios interpretativos descritos en el apartado 2, por lo que la definición de las mismas que se realiza en los artículos siguientes, es meramente descriptiva y orientativa. El planeamiento municipal podrá ajustar a menor escala las delimitaciones gráficas de las diferentes zonas propuestas.

***Artículo 19.***– Categoría de Ordenación de Especial Protección (EP).

1.– Se aplica a las rías y estuarios, playas, dunas, zonas húmedas interiores, acantilados costeros, áreas culminares o de vegetación singular y, en general, a zonas del territorio que presentan unos valores naturales relevantes -presencia de endemismos vegetales, riqueza de su fauna animal-, valor paisajístico relevante, valor científico, alta fragilidad, etc.

2.– Con el fin de propiciar una mejor regulación de usos y actividades en estas zonas y, dado lo heterogéneo de las mismas, se definen dos subcategorías de ordenación:

a) Especial Protección Estricta (EPE). Constituyen las áreas de máximo valor para la conservación, entre las que se encuentran las siguientes unidades: acantilados costeros de inclinación superior a 60.º, plataformas de abrasión, dunas, islas del mar territorial, playas naturales y áreas singulares.

b) Especial Protección Compatible (EPC). Tienen esta consideración los espacios que contando con valores ecológicos ambientales y/o paisajísticos muy relevantes, deben compatibilizar la conservación de estos valores con un aprovechamiento de sus recursos primarios, principalmente ganaderos y agrícolas. Se incluyen en esta categoría todas las unidades de acantilados costeros de inclinación inferior a 60.º.

3.– Eremu hauetarako irizpide orokorra, gizakiak ahalik eta gutxien esku hartzea da eta aurreko egoerari eustea; aldiz, zonan aprobetxamendurik badago, asmoa da aprobetxamendua iraunkorra izan dadin, erabilitako baliabidea berrituko dela segurtatuz eta ingurunearen balioak zainduz.

Babes Zorrotz Bereziko eremuetan (EPE) antolamendurako irizpide orokorra da ekosistemaren kontserbazioa, esku-hartze antropikoa mugatuz, bere ezaugarri morfodinamikoen kontserbazio zorrotza eta bertako landarediaren kontserbazio aktiboa sustatuz. Hondartza naturalei dagokienean, antolatzeko irizpidea honako hau da: batez ere ingurunearen eta paisaiaren kalitatea mantentzea, bertako kalitatea mantentzea eta gordetzea edozer gauzaren gainetik jarriz, eta ingurunea eta paisaiaren narriaduragatik hondartzaren eta bere ingurunearen izaera naturala galtzea saihesten ahaleginduz.

Babes Bateragarri Bereziko eremuetan (EPC) antolatzeko irizpide gisa, esku-hartze antropikoaren muga hartzen da, aurreko egoera mantentzera mugatuz; eta, zona, aprobetxamendupean badago, aprobetxamendu hau era iraunkorrean bultzatuko dute, erabilitako baliabidea berritzea eta ingurunearen balioak zaintzea ziurtatuz. Unitate hauek ekologia eta paisaiaren ikuspegitik duten balioak lehentasuna du bertako baliabideen aprobetxamenduan.

*20. artikulua.*– Ingurumenaren Hobekuntzako antolamendu-kategoria (MA).

1.– Hemen sartuko dira, balio handiagoko eremuen barne edo inguruan egoteagatik, kalitate handiagoa lor ditzaketen lurzoru marjinalak, baso narriatuak, eta sastraka-zonak.

2.– Kategoria honetan, honako azpikategoriak bereizten dira:

a) Ekosistemak Hobetzeko Eremuak (MA1). Halakotzat hartzen dira ekologia, ingurumen edota paisaiaren aldetik balioa edukita ere, mota eta kategoria askotan, bertan, gizakiak aldaketak eragin dituenean, betiere atzera buelta izan dezaketenak. Kategoria honen barne daude, zaintzeko balio altua edo oso altua duten eremuak, adibidez, harizti azidofiloa eta leheneratzea gomendatzen duten narriadura-fasean dauden atlantikoko baso mistodun harizti-masak. Halaber, bertan sartuko dira, ingurumen-balio handiko sastraka eta zuhaixka-erako landarez osatutako sastraka kantabriarreko zonak. Zuhaixka-erako landareen zenbait zona, bertako basoaren narriadura-estadioei dagokie, ekintza antropikoaren ondorioz gehienetan (erretzeak eta mozketak). Alabaina, 92/43/EEE Zuzentarauaren barruan interes komunitarioko habitat gisa katalogatuta dauden eremu horietako batzuk ingurumen-balio handikoak dira eta, horrenbestez, bertan garatuko diren hobekuntza-jardunek ez dute mantentzeaz bestelako helbururik izango.

3.– El criterio general de ordenación es limitar al máximo la intervención antrópica, manteniéndose la situación preexistente y, en el caso de que la zona esté sometida a aprovechamiento, impulsar el mismo de forma sostenible, asegurando la renovación del recurso utilizado y la preservación de los valores del medio.

En las áreas de Especial Protección Estricta (EPE) el criterio general de ordenación es la conservación del ecosistema, limitando la intervención antrópica, promoviendo la conservación estricta de sus características morfodinámicas y la conservación activa de su vegetación. En el caso de las playas naturales, el criterio de ordenación es el mantenimiento de la calidad ambiental y paisajística de forma prioritaria, anteponiendo el mantenimiento y restauración de la calidad ambiental y paisajística a cualquier otro objetivo de uso, tendiéndose a evitar la pérdida del carácter natural de la playa y su entorno por degradación ambiental o paisajística.

En las áreas de Especial Protección Compatible (EPC) el criterio de ordenación es la limitación de la intervención antrópica, limitándose a mantener la situación preexistente, y, en el caso de que la zona esté sometida a aprovechamiento, impulsar el mismo de forma sostenible, asegurando la renovación del recurso utilizado y la preservación de los valores del medio. El valor ecológico o paisajístico de estas unidades se considera una cuestión prioritaria en el aprovechamiento de sus recursos.

***Artículo 20.***– Categoría de Ordenación de Mejora ambiental (MA).

1.– Se incluyen en esta categoría los bosques degradados, zonas de matorral y suelos marginales que, por su ubicación en el interior de, o junto a áreas de mayor valor se considera beneficiosa su evolución hacia mayores grados de calidad.

2.– En esta Categoría se distinguen las siguientes subcategorías:

a) Áreas de Mejora de Ecosistemas (MA1). Tienen esta consideración los espacios que aun contando con valores ecológicos, ambientales y/o paisajísticos de importancia, han sufrido modificaciones antrópicas de diverso tipo y grado, pero de carácter reversible. Se incluyen en esta categoría áreas que presentan un valor para la conservación alto o muy alto, entre las que se encuentran los bosques autóctonos de robledal acidófilo y las masas de robledal con bosque mixto atlántico que se encuentran en una fase de degradación tal que aconseja su recuperación. También se incluyen las zonas de matorral cantábrico integradas por matorrales y formaciones arbustivas de alto valor ambiental, correspondientes algunas de ellas a estadios de degradación del bosque autóctono, consecuencia en la mayoría de los casos de la acción antrópica (quemas y talas). Sin embargo, algunas de estas zonas que están catalogadas como hábitats de interés comunitario dentro de la Directiva 92/43/CEE, presentan un elevado valor ambiental, lo que implica que las actuaciones de mejora que se desarrollen solo persigan su mantenimiento.

b) Berreskuratzeko Eremu Narriatuak (MA2). Halakotzat hartzen dira gizakiaren ekintzaz narriatutako eremuak izanik, aurreko antolamendu-kategoriakoak baino berreskuratzeko ahalmen eta ingurumen-balio gutxiago dutenak. Azpikategoria honen barne sartuko dira txilardi, otadi eta irasail atlantiarreko unitateak, dragatzeetatik jasotako metaketak dituzten mareartekо zonetako betetze-eremuak, hartxingadi-eremuak, eta Babes Bereziko zonen inguruan narriatutako eremuak, hau da, berreskuratu beharra eskatzen duten zonak.

3.– Kategoria hauetan jarduteko irizpide orokorra kalitate handiagoa lortzera bideratutako ekintzak gauzatzean datza. Ekosistemak Hobetzeko Eremuetan, ekosistema funtzional interesgarriak berreskuratzera zuzendutako hainbat lan egin behar dira. Berreskuratzeko Eremu Narriatuetan, bestalde, irizpide nagusiak ingurumena berreskuratzea izan behar du, batez ere, kokatuta dauden zonaren ingurumen-balioa berreskuratzera bideratua. Tradizionalki ezarritako eta bere ingurumen-balio banaezina duten nekazaritza eta abeltzaintzako zereginei lotutako jardueretarako erabiltzen duten zonetan, antolatzeko irizpidea, jarduera horiek eta ingurumena berreskuratzeko helburuak uztartzea izango da.

*21. artikulua.*– Basoko antolamendu-kategoria (F).

